

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea %0,6 nominala gehitu zen 2014ko hirugarren hiruhilekoan

Urte artean salmenta-indizea %1,6 gehitu da termino finkoetan

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2014ko hirugarren hiruhilekoan, salmentak %0,6 nominala gehitu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, eta lan-egutegi homogeenan. Gasolindegia sartu gabe, indizea %0,8 gehitu zen urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,2 nominala jaitsi da, urtarotegirak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa (p). III/2014

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	0,6	-1,2	1,6	-0,6
Araba/Álava	2,6	0,3	3,5	0,6
Bizkaia	-1,3	-1,9	-0,2	-1,4
Gipuzkoa	2,4	-0,7	3,5	-0,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-4,9	-1,8	-3,8	-1,8
Elikagaietan espezializatuta	-4,3	-1,5	-2,1	-1,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-5,2	-1,9	-4,8	-2,0
Beste produktuak	5,5	-0,4	6,0	0,3
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	13,1	1,6	13,7	3,6
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	2,6	-1,0	3,3	-0,1
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,3	-0,7	0,2	-0,4
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-2,8	-1,5	-2,6	-1,7
Automoziorako erregaia	-1,5	-0,1	0,7	0,2
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,8	-1,0	1,7	-0,6
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-0,3	-0,2		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: Eustat. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmenta nominalak %4,9 gutxitu ziren 2014ko hirugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %5,5 gehitu eta Automobilgintzarako erregaian %1,5 gutxitu, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %4,3 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %5,2. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %13,1 gehitu eta Etxeko ekipamenduan %2,6;

Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %0,3. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-2,8.


2014ko hirugarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak Bizkaian bakarrik gutxitu dira urte artean, %1,3. Araban %2,6 gehitu ziren salmenta nominalak eta Gipuzkoan %2,4.

Prezio finkoetan, alegia, prezioen eraginik gabe, urte artean txikizkako merkataritzaren salmentak %1,6ra gehitu dira hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhileko %0,4tik

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,7ko gehikuntza izan zuten 2013ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, termino finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala, %3,8; Gainerako produktuetan %6,0 gehitu, 2013ko hiruhileko beraren aldean; Automobilgintzarako erregai-salmentetan %0,7ko jaitsiera prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-2,1 dugu espezializatuan termino errealean; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-4,8. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %13,7 gehitu eta Etxeko ekipamenduan %3,3; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %0,2. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-2,6.

Prezio finkoetan eta urte artean: Araban %3,5; Gipuzkoan %3,5; Bizkaian %-0,2.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,6ko jaitsiera dago aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2014ko bigarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,2 txikitu da 2014ko hirugarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua